



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Azken urte hauetan pentsio publikoak jomugan daude eta era planifikatuan eraso handiak jasotzen ari dira botere politikoen eta ekonomikoen aldetik, hainbat arlotan murrizketak pairatzen ari direlarik. Estatu espainolean bortizki antolaturiko eraso horiek herritarren artean ziurgabetasuna eta beldurra zabaltzea dute helburu, hartzen diren neurriak “ekidinezinak” direla sinestarazteko.

Eskuduntza nagusia Estatuaren esku egonik, euskal indar politiko gehienek jarrera menpekora eta konformista da, hitzetatik haratagoko pausuak emateko borondaterik gabe. Bitartean, herritarrek beraiek ekimena hartu dute, pentsio duinak bermatzeko mobilizazioak eta ekintza parlamentarioak eginez.

HELBURUAK

Behar beharrezkoa dugu neurri ausartak hartzea, gehiengo sozialarekin batera, hainbat belaunaldik bizitza osoan zehar egindako lana eta ahalegina eskubide eta segurtasun osoz babesteko. Zentzu horretan, hurrengo lau urteetan aurrerapausoak eman beharrez gaude, euskal pentsio sistema publikoa duina lortzeko bidean. Bitartean, kudeaketa eta lege-garapena eskuratzea eta egungo pentsioak duinak izatea ziurtatzea ezinbesteko konpromisoak dira.

NEURRIAK

- 1 Pentsionistek bultzatutako HEL-Herri Ekimen Legegileari bidea emanez, Jaurlaritzako eskuduntzak eta ahalmena gauzatuko ditugu pentsionista guztien bizi-baldintza duinak bermatzeko

Legegintzaldian zehar, lau urteren buruan eta era mailakatuan, erretiro pentsio guztiak EAEko batez besteko soldata garbiaren %60raino osatuko ditugu, 1080€raino alegia, Europako Gutun Sozialak esandakoa betez.

Jasotzaileak pobrezia kondentzen dituzten beste pentsio guztiak, batez ere alargunenak, osatzeko eta duintzeko pausuak emango ditugu, horretarako egungo legeria aztertuz eta aldatuz.

2

Legebiltzarrak gehiengo osoz onartutakoari bide emanez, Gizarte Segurantzaren egungo sistemaren garapena eta kudeaketa gure esku izateko akordioak gauzatuko ditugu

Gehiengo politikoak berretsi eta eraginkor bihurtuko ditugu, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa berehala lekualdatzeko, horrela kuotak biltzeko, prestazioak ordaintzeko, altak eta bajak erabakitzeke eta sistema ikuskatzeko gaitasuna bereganatuz.

Bizitza duina eta pentsio duinak ahalbidetuko dituen gizarte babeserako sistema publikoa eraikitzeke bidean, Gizarte Segurantzaren sistema euskal erakunde publikoek legez garatzea, gauzatzea eta osorik kudeatzea egingarria bihurtuko dugu.

3

Lege-ahalmen eta kudeaketarako gaitasun osoa izango duen Euskal Pentsio Sistema Publiko sortzea helburu, ekimen zehatzak, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordioak eta eztabaida publikoa sustatuko ditugu

Sistema bidezkoa eta bideragarria izateko, hainbat osagai (kotizazioak, erretiro adina eta baldintzak, prestazioak, gutxienekeo pentsioak, pentsio motak...) euskal erakundeen esku egoteko ezinbestekotasuna erakutsi eta aldarrikatuko dugu

Sistema iraunkorra eta koherentea izateko, enplegua, lan baldintzak eta soldatak bultzatuko dituen lan harremanetarako esparrua osatzeko ekinbideak egingo ditugu, etorkizuneko pentsioak ziurtatze aldera

Sistema osatzeko bide orria bideratuko dugu, batzorde berezitua osatuz, bideragarritasun juridikoa eta ekonomikoa aztertuz, Madrilekin eskuduntza negoziatuz eta horren egitura publikoa eratuz.

4

Borondatezko gizarte aurreikuspenaren sistemari dagokionez, entitateen balio soziala kontuan hartuko dugu, eredu produktiboa elikatzeke eta politika publikoak indartzeko euren ekarpena arautuz

Euskal aurrezkiaren zati garrantzitsu honek ekonomia erreala bultza dezan aukerak azertu eta konpromiso zehatzak jaso eta arautuko ditugu, hobari fiskalen politikari etekin publikoa lortuz

Entitateekin lankidetzak berrikusiko ditugu, euren balio soziala eta kobertura maila aztertuz, eta langile guztiengana heltzeko aukerak lehenetsiz

Zaurgarrienak diren kolektiboen beharrak kontuan hartuta, borondatezko gizarte aurreikuspenaren entitate publiko bat sortzeko aukera aztertuko dugu, eragileekin batera.